



2021/2022 ZAINZA ARAUDIA

Araudi honen irakurketa derrigorrezkoa da. Izena-emateak arau hauen onarpena suposatzen du. Edozein punturen ezbetetzeak kurtso osorako kaleratzea suposatu dezake.

1. ZAINZA:

Zaintza zerbitzua Aldaialde Herri Ikastetxeko Aldaiaberri Guraso Elkarteak antolatutako ekintza bat da Aldaialde ikastetxeko lankidetzarekin, eskolak baita instalazioak uzten dituen.

Hauek dira eskeintzen diren zerbitzuak:

- *Maiatza arte*: asteazken arratsaldeetako zaintza, jantokia ondoren.
- *Ekainean*: jantokia amaitu ondorengo zaintza ordutegi trinkoko egun guztietan.

Guraso elkarteko zerbitzu bezala, zaintza zerbitzuak ere, eman ahal diren greba zein lanuzteekin bat egingo du hauek onartzen direnean. Begiraleek greba egingo balute, zaintza taldean aztertuko da ea posiblea den zerbitzuaren funtzionamendua bermatzea, eta ezinezkoa bada, egun horretan ez da zaintzarik egongo.

2. COVID ARAUDIA

- Begiraleek eta zerbitzuaren erabiltzaile guztiek, edozein adinetakoak izanik ere, musukoa jantzita eramango dute uneoro.
- Zerbitzuaren hasieran eta irteeran, denek eskuak garbituko dituzte.
- Zerbitzuaren erabiltzaile guztiak burbuila talde bakartzat hartuko dira.
- Erabiltzailearen batek sintomaren bat erakusten badu zerbitzuan zehar, tutoreei deituko zaie eta berehala etorri beharko dute haien bila.

3. ERABILTZAILE RATIOA:

Zehaztutako erabiltzaile ratioa begirale bakoitzeko asteazken arratsaldeetako zaintzan eta ekaineko ordutegi trinkoko arratsaldeko zaintzan 10 umekoa da.

4. FUNTZIONAMENDUA ETA ERRESPONSABILITATEA:

Asteazken arratsaldeko zaintzan funtzionamendua hurrengoa da; begiraleak jangelako irteeran jasoko dituzte haurrak (beste edozein aita, ama edo senide balira bezala, patioan), eta zaintza-gelara eramaten dituzte. Gurasoak edo arduradunak, berriz, irteera-orduan, 15: 30ean, patiora joango dira jasotzera, gainerako egunetan jasotzen dituzten bezala. **Baimendutak dauden**



adinez nagusiko pertsonak soilik jaso dezakete umeak. Horretarako, izena emateko momentuan, jasotzera joango diren pertsonen izen-abizenak, NAN zenbakiak eta NANaren eskaneoa edo argazkiak eman behar dira. **Baimenduta ez dauden pertsonak ezingo dituzte umeak jaso,** eta begiraleek umeen gurasoak edo arduradunak deituko dituzte.

Zaintza 15:30tan amaitzen da, eta ordu hori baino beranduago umeak ezin dira ikastetxean egon. **Arau hau ez errespetatzeak kurtso osorako zaintza zerbitzutik kaleratzea suposatzen dezake.**

5. IZENA-EMATEA ETA OHARRAK:

Zaintza zerbitzua erabili ahal izateko, hurrengo galdeketa bete behar da:

<http://aldaiaberri.eus/zaintza-izena-eman/>

Harremanetarako erabiliko den komunikazio hedabidea posta elektronikoa izango da (zaintza@aldaiaberri.eus). Erabiltzaileekin harremanetan jartzeko, ikastetxeak ikasleei emandako Gmail kontua erabiliko dira: izena.abizena@aldaialdeikastetxea.eus. Asistentzia ezak ohartarazteko WhatsApp zerbitzuaren bidez ere egingo da.

Altak eta bajak hiruhilabete bakoitzeko lehenengo bi asteetan adieraziko dira. Epe hau pasata, ohiko erabiltzaileei hiruhilekoko kuotak kobratuko zaizkie.

Ez da egongo aurreko ikasturteetako erabiltzaile ez-ohikoen aukerarik, ohiko erabiltzaileena bakarrik.

6. ERABILTZAILE MOTAK:

Erabilpena	Erabiltzaile mota	Ezaugarriak eta ordainketa
Hilean 3 aste edo gehiago, hiruhileko osoan zehar.	Ohikoa	Hiruhileko konpromisoa dago. Ordainketa bakarra egingo dute hiruhilekoaren hasieran, hiruhileko horren hileko kuotekin bat datorrena

7. HIRUHILEKO BATEKO KONPROMISOA:

Ohiko erabiltzaileek hiruhileko bateko konpromisoa onartu behar dute. Denbora tarte honetan, 3-4 hilabeteko iraupena izan dezakeena, dagokien kuota ordaintzeko konpromisoa hartzen dute. Epe honetan ohiko eta ez-ohikoen izaera ezin da aldatu.

Hiruhileko epeak zera esan nahi du: oporraldi luzeen artean ematen den tartea, eta urtean zehar horrelako hiru daude:



1. Urritik abenduaren bukaeraraino). Lehenengo hiruhilekoak iraupen zehatza dauka eta urtero berdina da (iraila apartekoa da).
2. Urtarriletik Aste Santuraino.
3. Aste Santuaren amaieratik kurtsoa bukatu arte.

Bigarren eta hirugarren hiruhilekoen iraupena Aste Santuaren arabera aldatzen da. Horrek zera ekartzen du:

- Matxoaren amaiera/apirilaren hasiera, apirilean eskola-ordu bakar bat izan gabe: hiruhilabetekoa urtarriletik martxoaren amaiera-arte, hau da, 3 hilabete.
- Apirilaren erdialdetik edo amaieratik, eskola-orduak apirilean izanda, bai bigarren hiruhilabetekoan zein hirugarrenean: hiruhilabetekoa urtarriletik apirilera doa, hau da, 4 hilabete. Erabiltzaile bat ohikoa izanda, zaintza zerbitzua utziko balu hirugarren hiruhilabetean, kurtso amaieran dirua bueltako zaio, hirugarren hiruhilabeteko apirileko egunak hain zuzen ere.

Nahiz eta apirilean klaserik gabeko 2-3 aste egon, zaintzaren prezioa ez da aldatzen. Zerbitzua eskaintzen duen enpresak aurkezten dituen prezioak hainbanatuta daude, urte osoko klaseko egun guztiak kontutan edukiz, hau da, prezioak konstanteak dira kurtso osoan zehar.

8. KUOTAK:

Kuotak ezartzeko daude oraindik, eta zerbitzuaren erabiltzaile kopuruaren arabera egingo da. Interesa duten familiei behar besteko aurrerapenez jakinaraziko zaizkie prezioak.

Guraso elkarteko beste edozein ekintzetan bezala, bazkideek eta ez bazkideek desberdin ordaintzen dute: bazkideak ez direnek %15 gehiago ordaintzen dute (prezioak atxikipenean datoz zehaztuta). Bazkideak ez direnek ordaindutakoarekin jasotzen den soberakoa GE-ari abonatu zaio.

Ohiko erabiltzaileen kuotak begiraleen ordainketa ziurtatzen dute: begiraleen kostea ohikoa erabiltzaileen artean banatzen da eta hortik aurrera prezioak ezartzen dira. Esporadiko eta ez-ohiko erabiltzeen kuotak (etekinak) honetarako erabiliko dira:

- Banketxeen komisioak ordaintzeko
- Beharrezkoa izanez gero, ordutegi trinkoko arratsaldeko zerbitzua finantziatzeko, zerbitzuaren prezioak orekatzeko edo guraso elkarteari laguntza ekonomikoa uzteko edo itzultzeko.
- Begiraleen grebak direla eta, zaintza egon ez den egunengatik itzulpenak egiteko.
- Bigarren eta ondorengo anai-arrebei %15eko itzulpena egiteko (guztiak ohiko erabiltzaileak izanda).
- Bestelako ezustekoak.
- Hurrengo kurtsoan zerbitzua martxan jarri ahal izateko.
- Soberan geratzen denarekin, ohiko erabiltzaileen artean proportzionalki banatzeko (ohiko erabiltzaile bakoitzak ordaindu duen ehunekoa zerbitzuaren urteko kostearekiko). 5€ baino gutxiagoko itzulpenak ez dira egingo.



Erabiltzaile guztiei hileko kuota bat aplikatuko zaie, hiruhilekoaren hasieran aldez aurretik kobratuko dena.

Familia bereko bi kide edo gehiago goizeko zerbitzuko ohiko erabiltzaileak badira, kide bakoitzaren kuota hilabete jarraietan kobratuko zaie. Horrez gain, kurtso bukaeran soberan dagoen diru kopuruarekin, bigarren anai-arrebatik aurrera %15-arterko itzulpena egingo zaie (ohiko erabiltzaileak bakarrik).

Ordainketak banku giroen bidez egiten dira. Guraso elkartuko kide direnei bazkide izatean emandako kontu korrontetik egingo zaie. Guraso elkarteko kide ez direnek izena emateko web galdetegiaren bidez baimena eta banketxeko datuak erraztuko dituzte (<http://aldaiaberri.eus/zaintza-izena-eman/>).